

Ohorezko euskaltzain-agiria jasotzean

Jaun-andere euskaltzainok, ohorezko euskaltzainkide berriok, inguratu zareten lagun guztiok:

Behin batean bazen dama prestu bat, herrian itzal handia zuena, eta bere adinean gora 96 urte betetzear zena. Osasun onean zegoenez, bere ehungarren urteurrena ospatzeko prestaketak egiten hasi zen. Ospakizunera nortzuk gonbidatuko erabakitzean, bere jaioterriaz gogoratu zen –herri atsegina eta dotorea–, eta nola, bataiatu ondoren, bertako mendigune eder eta harrigarri batera eraman zuten, jaiotza-bataioak ospatzera; eta gogoratu zen, baita, joandako urteetan, zenbait jardunaldi garrantzizko egina zela mendigune hartan, bere bizibidea markatu zuena. Horregatik bere jaioterri hartakoren bat eta mendigune hari bereziki lotutakoren bat aukeratzea erabaki zuen gonbidatuen zerrendan jartzeko...

Eskerrik asko gonbidapenagatik! Ospakizunetan izango nauzu, Jainkoak nahi badu.

Une honetan, berriz, Euskaltzaindiaren jaiotza-bataio haietan testigu –aita-ama ponteko edo– izan ziren Arantzazuko fraide bi ditut gogoan, 1918ko Oñatiko Kongresu ospetsu hartan parte bizia izan zutenak: Jose Adrian Lizarralde historialaria eta Jose Arrue musikari eta poeta.

Azkenik, gaurko aukera honetaz baliatuz, neure gonbidapena eta iradokizuna erakunde honentzat, Oñatiko herriaren borondatea interpretatuz, batetik, eta Arantzazuko fraide-anaiartearen izenean, bestetik: mendeurreneko ospakizun-ekitaldiak antolatzeakoan beren atea irekita eta beren besoak zabalik aurkituko ditu Euskaltzaindiak Oñati eta Arantzazu.

Mila esker!

Paulo Agirrebaltzategi
Bilbo, 2014ko uztailaren 18an